

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Edateko uraren homidura udal zerbitzua emateagatiko tasaren kontribuzio padroia. 2019ko 3. hiruhilekoa. (Espedientea: 2019/22/S213)**

Ekonomia eta Zerga Kudeaketa zerbitzuak 2019 urteko 3. hiruhilekoan zehar prestatu den Audio udalerriko edateko uraren hornidura udal zerbitzua emateagatiko tasako kontribuzioa ordaindu behar dutenen zerrenda.

Jarduneko alkate-udalburuak onartu du 2019ko urriaren 3 eguneko 2291 zenbakia duen eba-zpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Udal Kudeaketa Arloko bulegoan (Herriko Plaza 2. solairuan) 9:00/14:00 ordutegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskape-nari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.

Aipatu den jarduneko alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsua jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertze errekurtsuak alkate-udal-buruari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2019ko urriaren 8 egunetik 2019ko abenduaren 9 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden errezibuak 2019ko urriaren 14 egunean kobratuko dira.

Tasaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank, Laboral Kutxako eta Nafarroako Caja Ruraleko bule-goan bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko errezibua aurkeztuta. Erreziburik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezibuaren ale bikoiztua eskatu uren udal zerbitzu bulegoan, Izoria kalean, 4 - behea eskuinean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren errezibuak auto-matikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-ko-rrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Audio, 2019ko urriaren 3a

*Jarduneko alkate-udalburua*  
**JOSEBA ANDONI AMONDO ESKUZA**